




Foro monografikora gerturatu zirenek lan mahaietan aztertu zituzten udalak orain arte egindako ekimenak.

Gaiak erakarrita asteazkenean 70 bat herritar bildu ziren Lasarte-Oriako Agenda 21eko hondakin gestioaren monografikora. Lan taldeetan orain arte egindako ekimenak azterteaz gain, herritarrek bere kezkek azaltzeko aukera izan zuten, hala nola, atez ateko bilketa edo errauskailua. Hau guztia asteleheneko TXINTXARRIn jorratuko dugu. •

Foro arrakastatsua

Agenda 21eko hondakinen gestioaren monografikoak herritar ugari bildu zituen Villa Mirentxun



Garraxi Ixilak antzezlanazpeitiko Izarraitz pilotalekuan eta Leidorren /3

LEHIAKETA ■ 3

Erakusleihoen lehiaketa antolatu dute Udalak eta Aterpeak

GIZARTEA ■ 4


Lasarte-Oria Bizirik! 30.000 sinadura biltzeko asmoz materia organikoa bildu dezaten

KIROLA ■ 6

Buruntz-Azpi elkarteak ehiza eta arrantza sariak banatu zituen larunbatean

Sahar herriaren erresistentzia

Asteleheneetik *Amets bat erakitzen* erakusketa ikusteko aukera dago Manuel Lekuona kultur etxean. Asier Bastida argazkilaria lanaren bidez saharar biztanle errefuxiatuen egunerokotasuna ezagutzen da. Euskal Fondoak antolatutako erakusketak, amets baterantz doan herri nomadaren existentzia aurkezten digu. Salaketa da, eta era berean Saharar Herriaren erresistentziari, bere jendeari, omenaldia. Erakusketa azaroak 28ra arte egongo da ikusgai. •



- POLIURETANOA
- PVC
- ALUMINIOA
- ZUBI TERMIKOAREN HAUSDURA
- ATE-LEIHOAK
- PERTSIANAK
- TOLDOAK
- DEKORAZIOA



ISU

Orain diru-laguntzak ematen dituzte,
1.650 euro arte, leiho berriak jartzeagatik

Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 366495 • Faxa: 943 365222

Zorion-agurrak



Ibai eta Urko

Zorionak bikote!
Muxu handi bat eta oso ondo pasa familia-
ren partetik.



Aimar

Zorionak zure biga-
rren urtebetetzean.
Zure familia osoaren
partetik



Irati

Zorionak garbantzito
eta hiru muxu haundi
aitatxo eta amatxoren
partetik



Amaier

Ongi etorria gurera!
Zure amatxoren kua-
drilaren partetik.



Ainhoa

Proiektuak ez dira baka-
rrik ondo egiten dituzu-
nak, parrandak ere...
Muxuak denon partetik.



Elene

Zorionak eta sei
muxu haundi etxeko-
en partetik.



Nika

Zorionak munduko
amona hoberenari!
Enara, Leire, Uxue, Irati,
Oier, Aiora eta Julen.



Aintzane

Zorionak eta bi muxu
handi familiaren parte-
tik. Eneritz, Aintzane
eta Eñaut.



Hodei eta June

Zorionak bikote zuen lehenengo urtebetetzean! Gura-
so eta famili guztiaren partetik. Muxu handi-handi
bat!!!



Elvira

Zorionak amona,
Eneko, Joseba, Julen eta
Mariaren partetik.



Joseba

Zorionak! Muxu handi
bat Ttakunekoen partetik!
Segi orain bezain ondo!

Guardiak

- Ostrala, 21**
Rodríguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
- Larunbata, 22**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Igandea, 23**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Astelehena, 24**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Asteartea, 25**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
- Asteazkena, 26**
Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567
- Osteguna, 27**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Telefonoak

- Osasuna / Larrialdia**
- Osasun Zentroa ... 943 007960
- DYA ... 943 370000
- Gurutzegia ... 943 363953
- Udaltzainak ... 943 362442
- Ertzaintza ... 943 288888
- SOS Deiak ... 112
- Udala**
- Erregistroa ... 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia ... 943376182
- Kulturetxea ... 943376181
- Bakezko epaitegia ... 943371629
- Zerbitzu Sozialak ... 943376179
- Zentro Zibikoa ... 943363958
- KIUB ... 943361605
- Udal euskaltegia ... 943361621
- Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Jaiotzak

- Ametz Fernández Ospiz,
azaroaren 13an
- Alaia Aguado Fraile,
azaroaren 12an
- June Mesa Bocos,
azaroaren 11an

Eider Daniela Layala Rebelo,
azaroaren 9an

Heriotzak

- Alberto Solis Oneca,
azaroaren 16an 43 urte zituela.
- Julian Salaberria Leizaola,
azaroaren 12an 83 urte zituela.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Pisu bat alokatzen da Lasarte-Oriako erdigunean. Abala eskatzen da. Tel.: 686 674 552.
- Salgai trasteleku bat Sasoetan. 20 metro karratu ditu. Salneurria: 700.000 pezeta. Tel.: 629 417815.

Salerosketak

- Garaje itxia erosiko nuke edozein lekutan, gehienez 4.000.000pta ordainduko nituzke. Tel.: 629 417815.
- 18 eta 22 metro karratueta 2 trasteleku saltzen ditut Lasarte-Orian (Sasoeta auzoan). Bakoitzaren prezioa 1.000.000pta. Tel.: 629 417815.
- Lizarrako kanpian Movil Home bat salgai. 1 l x 4 metrokoa, portxea eta partzela. Ila berria eta hobekuntzak. Kanpina urte guztian irekia dago. 87.300 . 943371038/658089380
- Urbarten garageko marra bat alokatzen det. 943.363524
- Garage itxia erosiko nuke Lasarte-Orian. Gehienez 4.000.000 milioi ordainduko lirateke. 629 417 815

Oharretarako:

943 366858 • txintxarri@ttakun.com • Geltoki kalea 4
www.txintxarri.info
www.txintxarri.iragarkilaburrak.com

• Haur denda bateko bustoak eta altzairuak saltzen ditut. Tel: 943 314312

• Salgai txakurkume ederrak. Artzaintza lanerako edo konpainiarako. Moduzko prezioan. Tel.: 652 71 95 24.

• Garaje marra bat alokairuan. 943364815

Lan-eskaintzak

• Neska bat eskaintzen da arratsaldeetan umeak zaindu, plantxa egin edo etxeko lanak egiteko. 647765854

Lan-eskariak

- Pertsona helduak zainduko nituzke, goizeko 9:00etatik 13:00etara. Lasarte-Orian edo inguruan. Tel.: 687 348 233.
- Neska arduratsua bat eskaintzen da lanerako. Helduak zaintzeko edo/eta garbiketa lanerako; interna moduan edo bakarrik egunean zehar. Tel.: 638 308 921.
- Neska arduratsua bat eskaintzen da lanerako. Helduak zaintzeko edo/eta garbiketa lanerako; interna moduan edo bakarrik egunean zehar. Tel.: 620 036 888.

Gazte Informazioarako Bulegoa
Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

Bizkaiko Foru Aldundiako suhiltzaile-gidarien 49 plaza

Bizkaiko Foru Aldundiak deituta oposizio sistemaren bidez, txanda askean hautatzeko aukera. Eskatzen diren baldintzak honakoak dira: hautagaiek C+E+BTP gidabaimena edo baliokidea eduki behar dute eta gidatzeko lizentzian ezarri zitzaizkien puntuen kopuru osotik %30etik gora kenduta ez edukitzea; Eskola-Graduatua, Lehen Mailako Lanbide Heziketa

edo baliokidea eduki behar da; 24 plaza derrigorrezko 2. hizkuntz eskakizunarekin eta 25 plaza derrigorrezkoa ez den 2. hizkuntz eskakizunarekin.

Izena-emateko epea, egutegiko 20 egun, EAOn argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Bizkaiko Foru Aldundira, Kale Nagusia, 25, Kale Nagusia, 25, 48008 Bilbo. Telefonoa: 94 4068000; web orria: http://www.bizkaia.net.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



**EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria. 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Erakusleihen lehiaketa antolatu da

■ Aterpeak eta Udalak lehiaketaren bidez sektorea dinamizatu nahi dute

TXINTXARRI

Iazko etenaren ostean, Lasarte-Oriako merkatarien elkarteak, Aterpeak, Lasarte-Oriako Udalen laguntzarekin, erakusleihen lehiaketa antolatuko du berriro ere.

Abenduan zehar egingo den erakusleihen lehiaketa Gabonetako egunetan sektorea dinamizatzeko asmorekin antolatu da. Honela, Aterpeak eta Udalak parte hartzea animatu nahi dituzte Lasarte-Oriako saltokiak.

Lehiaketaren arauak

Lasarte-Oriako merkataritza-establezimendu guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan. Saltokiaren erakusketa epea abenduaren 9tik 19ra bitartekoa izango da, bi egun horiek barne.

Bestalde Aterpeak jakin arazi du, erakusketa epearen barne lehiakideen saltokiak argizatuta egon beharko dutela ixteko ordura arte lanean, eta gaueko bederatzia arte jaiegunetan eta jaiegun bezperetan.

Gainera, arauak dioten bezala, lehiaketa honetan parte hartzea ez da bateraezina



Argazkian, Patxi Larrañaga Harategia k 2004. urteko lehiaketara aurkeztu zuen erakuslehia.

na beste batzuetan parte hartzearekin.

Sariak emateko garaian erakusleihen argiztapena, produktuaren kontrastea, originaltasuna eta sormena kontuan hartuko dira. Gainera, erakusleihen saltokiarekin harremana duen produkturen

bat edo batzuk izan beharko ditu. Lehiaketaren irabazleek diploma bat jasoko dute agiri moduan.

Epaimehaia dekorazioko profesional batek, Merkataritza batzordeko lehendakariak edo honek esku uzten dionari eta Aterpeak izendatzen duen

pertsona bat osatuko dute.

Izena-ematea

Parte hartu nahi duten saltokiak abenduaren 5a baino lehen egin beharko dute izen-ematea 637 955 030 edo 943 366 228 telefono zenbakietara deituta. •

DONOSTIAKO BIGARREN INGURUBIDEKO LANAK

Leherketa gehiago

Donostiako Bigarren Inguru-bidearen lanak direla eta, egun hauetan zehar zenbait leherketa egingo zirela iragarri genuen. Hurrengo, azaroaren 22an izango da. N-I eta Teresategi baserriaren artean izango da gutxi gorabehera 16:00k eta 18:00ak artean. Herritarrak jakinarenean gainean jarri nahi ditu Udalak ustekabea ez harrapatze arren. •

GENERO-INDARKERIA

Azaroak 25, genero-indarkeriaren aurkako eguna

Justizia auzitegi nagusiko genero-indarkeriari buruzko behin behineko datuek diotenez 2008ko lehenengo hiruhilekoan Euskal Herria 281 urrutze agindu eta 1.007 salaketa egon dira eta Espainia mailan, aldiz, urrutze aginduak 9.514 dira eta salaketak 33.950. Oraindik lan asko dago egiteko.

Horregatik azaroak 25, astearte, genero-indarkeriaren aurkako egun internazionala dugu eta Emakumeen Zentro Zibikoak hainbat ekitaldi antolatu ditu gaur eta egunetan bertan egoera salatzeko.

Gaur, 19:30ean Emakumearen Zentro Zibikoak antzerki taldeak "Retales de Mujer" obra eskainiko du, Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusian. Honen ostean, 21:30ean gutxi gora behera, Txitxardin Beltza jatetxean afari herrikoia antolatu da Lasarte-Oriako emakume guztientzat.

Asteartean, berriz, Teresa Mollá anderea, Ontinyenteko udaleko zinegotziak, zeinek genero-indarkeriaren aurkako legearen aurreproiektuan parte hartu baitzuen, hitzaldia eskainiko du Emakumearen Zentro Zibikoan 18:00etan.

LITERATUR LEHIAKETA

2008ko sarien banaketa ekitaldi bihar izango da

Bihar eguerdian Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan 2008ko Lasarte-Oriako Literatura Lehiaketako sari banaketa burutuko da. Bertan aurtengo helduen eta haurren mailako irabazleak nortzuk diren ikusi ahal izango dugu. •

Garraxi Ixilak, 36. urteko gerra zibilari buruzko antzezlan Lasarte-Oriatik at ikusgai

Landaberri Antzerki eskolakoek Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan eta Tolosako Leidorren antzeztuko dute

Landaberri Antzerki Eskolakoek *Garraxi Ixilak* antzezlan herritik at ikusteko aukera izango da. Gaur bertan, azaroaren 21ean, Azpeitiko Antzerki Topaketan barruan, Izarraitz pilotalekuan gaueko 21:30ean eta hurrengo ostiralean, arazoaren 28an, Tolosako Leidorren, 22:30ean.

Landaberri Antzerki Eskolakoek *Garraxi Ixilak* lana Andoaingo Bastero kultur etxean estreinatu zuten jende aurrean maiztasun. Izan ere, Andoaingo Oroituz taldeko Xabier Lasaren *Ahozko historia: oroimenean lokartutako ahotsa* liburuan oinarritzen baita lasarteiarren antzezlan hau.

Xabier Lasak liburuan jasotzen dituen hainbat pasari-



Landaberri Antzerki Eskolakoek *Garraxi Ixilak* lana Lasarte-Oriako Kultur Etxeko aretoan eskaini zuten ekainean.

te, testimonio eta bizipen islatzen dituzte ordu bete inguru irauten duen antzezlan honetan: fusilamentuak, kartzela,

exodoa, trintxerak, gosea, irainak, ile mozketa...

Andoainen 36. urteko gerran bizi zituzten egoerak

badira ere, Euskal Herriko eta Estatu Espainoleko edozein herritan gertatutako bizipenak izan daitezke. •

Materia organikoa biltzeko 30.000 sinadura behar dira

Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Koordinakundeak materia organikoaren bilketa burutu dadin Eusko Legebiltzarrean herri ekimen legegilea (HEL) erregistratu zuen aurreko astean. Lege hau aurrera aterako balitz udalerriek zabor organikoa jasotzera derrigor-tuak egongo liriateke, atez ateko sistemaren bitartez edo dena delakoaren bitartez. Koordinakundearen iritziz, "lege horrek atez ateko zabor bilketaren alde eta errausketaren kontra egin beharko luke".

Lasarte-Oria Bizirik Errausketaren Aurkako taldeko kideek herri ekimen legegilearen eraketan parte hartu dute eta beraiekin hitz egin dugu ekimen hau zertan datzan jakiteko. Taldekideek azaldu digutenez, "ekimenaren helburua zaborraren bilketa arautzea da", honen harira, "herrialde Katalanetako ereduaren antzeko araudi bat ezartzea proposatzen dugu: hondakinak gaika atez ate bildu eta errauste prozesurik gabe zaborra tratatzea". Koordinadorak lege horri bermea emango dion hondakinen agentzia bat eratzea proposatzen du ere, legean jasoko dena aurrera ateratu dadin eta prozesua ikustatu dezan.

Sinadura bilketa

Eusko Legebiltzarreko Mahaia Errausketaren Aurkako Koordinadorak aurkeztu duen herri ekimen legegilea tramiterako onartzeko hilabete epea du. Ondoren, Koordinakundeak lau hilabete izango ditu 30.000 sinadura biltzeko. Hauek behin lortuta Koordinakundeak Legebiltzarrean aurkeztuko beharko ditu herri ekimen hau eztabaidatua izan dadin.

Errausketaren Aurkako Koordinakundeak Eusko Legebiltzarrean aurkeztu duen ekimen legegileak herritar guztien babesa beharko du aurrera ateratzeko. Hau da, legebiltzarrean gai hau hizpide izan dezaten ekimenak 30.000 sinaduren babesa beharko du. Horregatik, Lasarte-Oria Bizirik taldeko kideak herriko kaleetara aterako dira sinadurak biltzeko. "Legea onartuko balitz, udalerriek materia organikoa jasotzera behartuta egongo liriateke. Hondakinak kudeatzeko sistema egokiena atez ateko gaikako bilketa dela uste dugu, birziklaketa eraginkorragoa delako eta errauste planta batek osasunean eragiten dituen kalteak saihesten dituelako".



Errausketaren aurkako manifestazio jendetsua izan zen duela bi urte Lasarte-Orian, egin zena.

Beraz, hilabete epea amaitzen denean, Lasarte-Oria Bizirik taldeko kideek kalera aterako dira herritarren sinadurak biltzeko. "Momentu honetan, oso garrantzitsua da lege hau aurrera ateratu dadin, osasunaren aldeko lege bat lortuko baikenuke. Horregatik, Lasarte-Oria Bizirik taldekoek ahalegin guztiak egingo ditugu gure

herrian sinadurak biltzeko", diote Lasarte-Oria Bizirik taldeko kideek, "lege honen bitartez, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako udalerririk guztietan materia organikoa jasoko litzateke. Hau da, etxeko zabor poltsatik %40a birziklatu genezake". Errausketaren aurkako taldeko kideek honen harira, "modu honetan, zabortegietan sortzen

diren betiko arazoak saihesten dira, hondakin organikoek sortzen baitute kiratsak eta, lurra eta uraren kutsadura, besteak beste. Erraustegiek behar duten zabortege toxikoak ere ekidinduz genituzke (erraustegi batean erretzen denaren %30a hondakin toxiko bihurtzen da)".•

Itziar CARRASCO

Atez ateko gaikako bilketa

Errausketaren aurkako kideek argi dute atez ateko gaikako zabor bilketa, zaborra kudeatzeko sistema "eraginkorra, jasangarria, osasuntsua, garbiena eta merkeena dela". Lasarte-Oriako udalbatzarrek martxoaren 14ean burutu zuen ohiko bilkuran, 2009. urtean esperientzia pilotu bat egin ondoren, atez ateko zabor bilketa ezartzea erabaki zuen.

Usurbilen urtarrean atez ateko bilketarekin hasiko direla iragarri dute, bertako arduradunek. Atez ateko bilketa egiteko egutegi bat ezarriko dute, jendeak jakin dezan zein egunetan, zein orduetan, zein zabor mota ateratu behar duen etxeko atarira. Gaizki egiten duten herritarrei nola egin behar duten azalduko zaie behin eta berriz beharrez gero, baina jarrera zuzendu ezean, ez zaie zaborra bilduko.•

Javi Melchor

Lasarte-Oria Bizirik taldeko kidea

"Firma batez hondakinen kudeaketa jasangarriago bat lortu dezakegu"

Javi Melchor Lasarte-Oria Bizirik taldeko kidea da eta Errausketaren Aurkako Koordinakundeak aurkeztu duen herri ekimen legegilearen (HEL) inguruan galdetu diogu taldearen iritzia ezagutzeko.

Herri ekimen legegileak zertan eragingo luke, hau aurrera aterako balitz?

Legea onartuko balitz, udalerriek materia organikoa gai-

nontzeko zaborretik bereiztuta jasotzera behartuta egongo liriateke. Hala nola, papera, beira, plastikoa, ontziak, organikoa... Hondakinak jasotzeko modurik eraginkorra atez ateko gaikako bilketa dela frogatuta dago. Horregatik aurkeztutako herri ekimen legegilean atez ateko gaikako bilketa jaso eta errausketaren aukera baztertzen da.

Herri ekimen legegileak zer-

gatiak baztertzen du errausketaren aukera?

Atez ateko gaikako bilketa egiterakoan, birziklatu ezin den zaborra, errauxa, oso gutxi da. Eta errauxa hau tratatzeko errausketa baino eraginkorragoa, osasuntsuagoak, garbiagoak, ekologikoagoak eta askoz ere merkeagoak diren sistemak daudelako.

Uste duzue herritarrek sinadura bilketari babesa emango



Javi Melchor, Lasarte-Oria Bizirik taldeko kidea

diotela?

30.000 mila sinadura behar ditugu eta jendea arduratsua izan dadin espero dugu. Firma soil batez hondakinen

kudeaketa jasangarriago bat lortu dezakegu eta errausketa ekidin. Politikariek ere herri ekimena aintzakotzat har dezaten espero dugu.•

Merkealdietan hizkuntza-berdintasuna

Lasarte-Oriako udalaren asmoa establezimenduak egunean jartzen laguntzea da

TXINTXARRI

Gero eta gehiago dira bi hizkuntza ofizialen erabilera zuzena egiten duten enpresak. Eta horri esker kontsumitzaileak, nahi izanez gero, euskaraz jaso dezake zerbitzua.

Gogoratu, bestalde, abenduaren 22ko 6/2003 Legearen VII. kapituluaren hasierako 37. artikulua arabera, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek eskubideak dutela ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko.

Era berean, Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan kokatzen diren enpresa edo establezimenduekin dituzten harremanetan, ofizialak diren bi hizkuntzeta-ko edozein erabiltzeko. Hala ere, ezarritako progresibotasun-baldintzen baitan dago eskubide hori egiaz gauzatzea.

Lehendik aipaturiko legearen garapenaren barruan, Dekretu berri bat onartu dute uztailean, zerbitzuzko enpresak eta hainbat establezimenduk hizkuntza-erabilera zuzena egin dezaten dirulaguntzak aurreikusituen dituen.

Euskara Batzordeak jakin arazi duenez, aipaturiko dekretuak ez ditu Lasarte-Oriako establezimenduak bete-betean ukitzen, baina bai zeharka, kontsumitzaileen taldea toki guztietan dagoela kontuan izanda.

Ekintza eta helburuak

Gauzak honela, Udalaren asmoa herriko establezimenduak maila linguistikoa egunean jartzen laguntzea dela azaldu dute Euskara Batzordeak.

Oraingoan Gabonak aldeira izaten diren beherapenekin loturiko errotulaziorako elementuak dira Lasarte-Oriako udalak establezimenduen eskuetan jartzen dituenak.

Ekintzaren helburua hirukoitza da, batetik dendariari bere zerbitzua euskaraz eman dezan bitartekoak ematea, bestetik bezero euskaldunei herriko establezimenduen paisaian euskara gehiago ikusita, euskaraz egitera bultzatzea eta, azkenik, bezero erdaldunei paisaian euskara ere modu naturalean ikustera ohitzea.

Materiala

Horregatik, asteazkenean,



Egitaspora atxiki diren establezimenduak

LZE jantzi-denda
Anaiak jantzi-denda
Donna boutiquea
Nogues jantzi-denda
Alda bitxitegia
Inquietud jantzi-denda
Yone boutiquea
Kisket
Femme jantzi-denda
Alzuaran jantzi-denda

LUA bitxiak eta osagarriak
Maya lantzeria
Sasoeta lantzeria
Fernandez ehunak
Valen mertzeria
Dolce Vita
Alazne lantzeria
Aritz mertzeria
Olmí
Arbil oinetakoak

Maiterik oinetakoak
Iturbe oinetakoak
Eneka zapata-denda
Leder zapata-denda
Roma II
Txalo pin txalo
TTipi-Ttapa
Ormazabal
RN gaztea zapata-denda

Ricardo Ortega Euskara Batzorde buruak eta Marifer Gorostiza Euskara saileko teknikariak, Lasarte-Oriako udalaren izenean, herriko 29

establezimenduri elementu desberdinak banatu zizkieten Manuel Lekuona kultur etxean egin zen ekitaldian.

Materialaren artean,

orain/lehen karteltxoak eskuratu dituzte dendariak prezioak zuzen iragartzen laguntzeko. Hauek, erraz ezaba daitekeen errotulagai-



luz idaztekoak dira, behin eta berriro erabiltzekoak.

Eta, honetaz gain, *Merkealdiak* eta *Eskaintzak* iragartzeko kartel fosforito handiak ere banatu zitzaizkien.

Bestelako eskubideak

Baina eskubide linguistikoek gain, beste batzuk ere badituzte kontsumitzaileek merkealdietan, eta buruan izan beharrekoak, gainera:

- Prezioz beheratutako produktuek kalitate bera kostu txikiagoan. eskaini behar dute. Sasoiko artikulua dira eta baldintza egokietan agertuko dira.

- Ez onartu egoera txarrean dagoen, akatsak dituen edo hondatuta dagoen produkturik, saldoa da hori.

- Etiketan aurreko prezioa eta oraingo beheratua edo beheratutako ehunekoak agertu behar dira, derrigorrez.

- Ziurta ezazu etiketa zuzen eta gaztelaniaz (edo Espainiako beste hizkuntza ofizialetako batean) irakurtzeko moduan dagoela.

- Erakusleihen agertzen diren eskaintzako produktuek prezioa agerian eduki behar dute.

- Eska itzazu ticketak eta fakturak; gorde itzazu, aldaketa edo errekamaziorik egin nahi izanez gero, ezinbestekoak gerta dakizkizute eta.

- Ticketak produktuaren izena, erosketa egin den data, prezioa eta establezimenduen izena azaldu behar ditu.

- Urte osoan kreditu-txartelen bidez ordaintzea onartzen duten establezimenduak beherapenetan ere beste horrenbeste onartzea behartuak daude, prezioa inola ere garestitu gabe, ageriko tokiretan batean bestelakorik iragarri ezean.

- Establezimendu batek urte guztian zehar itzulketak onartzen baditu. beherapenetan ere beste horrenbeste egin beharko du. Bestela, edonola jakinarazi beharko du, kartelen bidez, esate baterako. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 22

10:30ean, Ostadar-Vasconia (Infantil txikiak) Michelinen.
12:00etan, Ostadar-Zumaia (Emakumezkoen KDT F-I, txapelketa fasea) Michelinen.
15:30ean, Lasarte-Oria Taldea-Hernani (I. Jubenila) Michelinen.
17:15ean, Ostadar-Sanse (Kadeteen Ohorezko maila) Michelinen.

11:00etan, Behobia-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila) Ugalde-Ventas, Irunen.
15:30ean, Segura Goierri-Ostadar (I. Jubenila) Alustiza, Seguran.
15:30ean, Danena-Lasarte-Oria Taldea (II. Erregionala) Elbarrena, Zizurkilien.
19:00etan, Touring-Ostadar (Emakumezkoen Liga) Fanderia, Oreretan.

Igandea 23

10:30ean, Ostadar-Intxurre (II. Erregionala) Michelinen.

11:15ean, Euskalduna-Ostadar (Alebinak) Argixao, Zumarragan.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 22

HERRIKO TXAPELKETA
10:00etan, Morrison-Buenetxea
10:50ean, Danena-Oria Krist.
11:40ean, Ainhoa-Viña del Mar
12:30ean, Oria Txiki-Tragoxka
13:20ean, Lurra XXI-ISU Leihok
14:10ean, Izkiñ-Isarra
15:00etan, Jordi-Epel
15:50ean, Obelix-Katanga

Igandea 23

10:15ean, Aldaz H.K.-Artaromo (Euskal Liga) Kiroldegian.

10:00etan, Bar Ignacio-ISU leihok (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Hondartza kiroldegian, Hondarrubin.

HERRIKO TXAPELKETA

10:00etan, Biyona-Siglo 20
10:50ean, Ilargi-Mayi
11:40ean, IOB H.K.-Okela

FUTBOL 8

Larunbata 22

13:30ean, Lasarte BHI-Urumea ikastola (Infantilak) Michelinen.

FUTBOL 7

Larunbata 22

20:30ean, Niasa-Corpa-Ttando reformas (III. Maila) Usurbilen.

SASKIBALOA

Larunbata 22

16:00etan, Ainhoa-Soraluce BKE (Gizezko seniorrak) Kiroldegian.

PILOTA

Ostirala 21

21:15ean, Usurbil I-Intza (Eskuz binaka II. Seniorra) Usurbilen.

Larunbata 22

16:00etan, Intza 1-Urnieta I (Eskuz banaka infantila 1. urtea) Michelinen.

16:00etan, Intza 3-Hernani 2 (Eskuz banaka infantila 1. urtea) Michelinen.

16:00etan, Intza 2-Hernani I (Eskuz banaka infantila 1. urtea) Michelinen.

16:00etan, Lurra XXI-ISU Leihok (Eskuz banaka infantila 1. urtea) Michelinen.

16:00etan, Hernani 2-Intza 2 (Eskuz banaka infantila 2. urtea) Michelinen.

16:00etan, Añorga 2-Intza (eskuz banaka alebinak 2. urtea) Añorgako frontoian.

18:30ean, Hernani 3-Intza I (Eskuz banaka infantila 2. urtea) Hernanin.

Buruntz-Azpi elkarteak ehiza eta arrantza sariak banatu ditu



Buruntz-Azpiko ehiza eta arrantza saileko 2008ko sarituenn talde argazkia.

Arg: Txema Valles

TXINTXARRI

2008an ehiza eta arrantza sailean emaitza onenak lortu dituztenei sariak eman zizkien Buruntz-Azpi elkarteak urtero antolatzen duten afariaren ostean. Eta ohiko sariez gain, bi sari berezi egon ziren Compaq Sportik ehiza mailan.

Urtero legez, Buruntz-Azpi Kirol eta Gastronomía elkarteak ehiza eta arrantza saileko sariak banatu zituen larunbatean.

Baina sari-banaketaren aurretik, Donostiako Ugull jatetxeko Joxein Olasagasti sukaldariak elkarte zuzendaritzako Martin Urtxegi, Diego Torres eta Ignacio Lasaren laguntzaz prestatu ari paregabe dastatzeko aukera izan zuten elkartearen bildu ziren 42 bazkideek.

Sariak

Ignacio Lasa elkarteko lehen-dakariak, Iker Fernandez eta Aritz Fernandez kirol ordezkariek eta Sole Villaronek egin zuten sari-banaketa.

Honela, 2008ko sarituak arrantza sailean, zizare arrantzan lehen-goia Juan Antonio Matxain izan zen eta bigarren Javier Salsamendi; arrantza arianean, aldiz, Jesus Ferreirak eraman zuen lehenengo saria, Javier Salsamendik bigarrena eta hirugarrena David Iglesiasek.

Ehiza sailean, ehiza txikia txakurrarekin modalitatean Aitor Fernandez izan zen lehenengo, 2. Patxi Urruzola izan zen eta Luis Sanchezek 3. saria eskuratu zuen; beterean laguntzaz prestatu ari paregabe dastatzeko aukera izan zuten elkartearen bildu ziren 42 bazkideek.

Sail honekin jarraituz, galeperra kaiola eran modalitatean 1go sailkatua Iraola izan zen, 2. Jesus Ferreira eta Eneko Urdanpilleta izan zen hirugarrena eta Compaq Sportik ehizan Jesus Naferrak eraman zuen lehenengo saria, Martxel Fernándezek bigarrena eta hirugarrena Imanolentzat izan zen.

Honetaz gain, bi sari berezi egon ziren modalitate honetan, bata kirolari jubenil hoberenari eta bestea 1go emakumeari. Sari hauek Ioritz Gonzalez eta Mari Luz Ramosentzat izan ziren.

Es Kerrak ematea

Era berean, Buruntz-Azpiko zuzendaritza batzordeak eskerrak eman nahi dizkie afarira joan ziren bazkideei eta etorkizuneko ekimenetan berriro ere hauen parte hartzea espero du. •

Beñat Elizalde LOKEko judoka Andorran bigarren

Asteburuan Beñat Elizalde Andorra La Vella III. Txapelketa Internazionalan lehiatu zen eta bigarren postua eskuratu zuen.

Aurrekoan, berriz, Parisen txapelketa senior batean lehiatu zen. Orduan bi borroka irabazi eta bat galdu ostean, etxera bueltatu behar izan zen. Hala ere, Gorka Aristegi LOKEko entrenatzaileak azaldu digunez, esperientzia ona eduki zuen Beñatek.

Honela, Aristegik aitortu digunaren arabera, emaitza hauek kontuan izatekoak dira, zeren eta hemendik bi astera lehiatuko den Gipuzkoako txapelketarako prestakuntza oso ondo baitoa. •



Beñat Elizalde Andorrrako txapelketako lehia batean.

Arg: Gorka Aristegi

Kiroletako oharrak


Aerogazte

Astelehena eta asteazkenetan, 17:15ean, aerobikoko eskolak ematen dira 14 urtetik beherako neska-mutilentzat, Udako Kiroldegiko aretoan. Begirale tituludunak koordinatu eta animatzen du, koreografia ugariekin, musika eguneratu eta dibertigarri. Ermitmoaren eta musika-kadentzien bidez, giza-harremanak eta osasuna garatzen eta hobetzen dituzte.

Aquarobic

Modalitate fisiko berri honen eskolak Udako Kiroldegiko Igerilekuan ematen dira, astearte eta ostegunetan, 9:15etik 14:15era. Aquarobic uretako gimnasia

egitean datza, musikaz eta ikasleen beharretara egokitutako aniketaz lagundua. Edozein adin, genero eta mailatako pertsonak egin dezaketen jardura da. Aerobicaren bidez errendimendua handitu daiteke besoak, hankak eta enborra erabiltzen diren kiroletan. Prestakuntza-modu ezin hobea da, baita gorputzaren goiko atalen eskuhartzea eskatzen duten jardura profesionala garatzen dutentzat ere.



Egunero

Erakusketa

MONICA CAÑON URSOLA margolariaren margo minimalistak ikusgai. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan.



Erakusketa

ASIER BASTIDA argazkilaria Amets bat eraikitzen erakusketa. Euskal Fondoan laguntzarekin. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 21

Kontzertua

ALBOKA ABESBATZAK eguberri-tako abestiek in giro-toko du Belenista elkarte Gabetako ekintzen zikloaren inaugurazioan. Kutxako aretoa, Donostian, 19:00ean.

Larunbata, 22

Sari banaketa

LASARTE-ORIAKO LITERATUR LEHIAKETAKO sari banaketa. Kulturetxean, 12:00etan.

Igande, 23

Zinea

SPACE CHIMPS filma ikusgai haurrentzako zinearen barruan. Sarrera 3 euro. Kulturetxean, 17:00etan.



Indarkeriaren aurka, emakumeek eginiko antzezlan

RETALES DE MUJER antzezlan eskainiko du Emakumeen Zentro Zibikoko antzerki taldeak genero-indarkeriaren aurkako egun internazionala gertu dagoela eta.

GAUR 19:30EAN, KULTURETXEAN
SARRERA, 2 EURO.
GAZTELANIAZ.

Astearte, 25

Hitzaldia

GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO EGUN INTERNAZIONALEAN Teresa Mollá Ontinyenteko (L'Entesa) udaleko zinegotziak genero-indarkeriari buruz hitz egingo du. Emakumeen Zentro Zibikoa, 18:00etan, GAZTELANIAZ.

Ipuin-kontalaria

BEA EGIZABAL, ipuin kontalari lasarteoriarrak, 6 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzendua, ipuin zoragarriak kontatuko ditu. Manuel Lekuona Kulturtxeko haurren liburutegian, 18:00etan. EUSKARAZ

Oharrak

Barrikotea Lasartearra elkarte

Elkarteko zuzendaritzak bazkide eta lagunei jakinarazi nahi die urtero antolatzen den barrikotea azaroaren 29an, larunbatean izango dela iluntzeko 20:30ean. Bertan parte hartu nahi duten guztiak elkartetik pasa behar dute izena ematera. Horretarako azken eguna azaroaren 26 izango da.

Katxalin Elkarte loteria

Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkarteak, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegora. Zerbakia 07.731 da eta txartel bakoitzaren prezioa 3 eurotako da, 0,50 zentimoko dohaina Katxalin elkarterako izango da. Loteria hau erosteko interesa dutenek KIUBN egin

dezakete, Ganbo kalean.

Eguberrietako loteria

Lasartearra elkarteak, bazkide eta lagunei jakinarazi nahi die, gabonetako loteria dagoeneko salgai dagoela. Erostekoa asmoa duenak elkarte egin dezake astelehenean ostiralera 18:00aurerara abenduaren 7a arte, hau barne.

Argazki kamara digital bat galdu da

Argazki kamara digital bat galdu zen Kroseko egunean. BENQ DC E720 markako kamara bat da. Aurkitu duenak mesedez deitu dezala 605 760 578 zenbakira. Sarituko da.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
Geltoki kalea 4, behe
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Eskutitzak

Zaborrarekin negozio egiteari STOP!

Zabor tasen igoerak onartzen ari dira Gipuzkoako hainbat udal-tan. Igoera batzuk %50koak dira (egia da ere igoera guztiak ez direla diru kopuru beretik abiatzen). Hala ere, salbuespenak salbuespen -horra Zarautz eta Azpeitiko kasuak-, birziklatu eta zabor gubi sortzen duten herritarrek eta zabor asko eta birziklatzen ez duten herritarrek berdin-berdin ordainduko dute. "Berdintasun" hori ez zaigu batere zuzena iruditzen. Azken batean, birziklatze ekimenetan parte hartzen duten herritarrei zigortzen ari zaie, zigorra baita zaborrarekin axolagabe jokatzen dutenak bezainbeste ordaintzera behar-tzea. Garbi dago tasa berdintasun hori ez datorrela bat hainbestetan entzun dugun "kutsatzen duenak ordain dezan" leloarekin.

Foru Aldundiak, Gipuzkoako zabor tasen ordainketa udal autonomiaren gainetik kontrolatu nahian, Kontsurtzioa ezarri nahi du. Horretarako, A-8 autopistan Bidegirekin egin zuen antzeko estrategia jarri du indarrean. Estrategia horren helburu nagusia errauskailua ordaintzeko dirua biltzea da, errauskailua garesti baino garestiagoa baita.

Tasen igoera handiak justifikatzeko, zaborra urrutiago dauten zabortegetara eraman behar dela eta, ondorioz, garraiatze gastuak nabarmen garestitu direla esan digute. Baina hori aitzakia hutsa da. Izan ere, Donostia eta Hernani zabortegetatik distantzia berera daude, eta, hala ere, Donostiako tasa 105 eurokoa izango da eta Hernanikoa, berriz, 90ekoa. Alde ederra. Baina garraioa aitzakia hutsa dela ageri-agerian uzten duen kasurik argiena Azkoitiko da. Lapatzeko zabortegetatik 6 kilometro-ra dago Azkoitia, eta, hala ere, tasa 138 eurokoa izango da.

Bestalde, Zubietako errauskailua eraikitzen baldin badute, Gipuzkoako zaborrek bide luzeagoa egin beharko dute, garraio gastuak gora egingo du eta Kontsurtzioak tasak garestitzeko aitzakia berriak izango ditu. Gogora dezagun, bide batez, zaborrak sortzen diren lekutik ahalik eta gertuen tratatu behar direla. Hori iraunkortasun ekologikoaren urrezko arauetako bat da. Hemen, baina, ez da betetzen ari.

Tasa igoerak benetan distantziek justifikatuko balituzte, zergatik ez eraman Debagoienako zaborrak Jundizera, Gasteizera, alegia. Izan ere, A-1 errepidearen bidez, Debagoiena eta Gasteiz bitartean dagoen distantzia Debagoiena eta Zubietan bitartean dagoenaren erdia da. Gainera, Jundizera eramanez gero, Zubietan baino askoz tratamen-

du merkeagoa eta ekologikoagoa izango lukete.

Igoerak justifikatzeko Foru Aldundia erabiltzen ari den beste argudioa honakoa da: "Zaborrak kudeatzeko sistema berri bat ezarriko dugu". Ez da egia. 2009an, Gipuzkoako zaborren kudeaketan ez da berrikuntza nabarmenik izango; zaborrak zabortegetara eramaten jarraituko dute. Berrikuntza bakarrik Lapatzeko konpostatze planta bixkia da. Batzatek beste bi milioi euro inbertitu dituzte proiektu horretan. Ez da, ez, tasa igoerak justifikatzeko moduko diru kopurua.

Baina kezka arrazoiak ez dira hor bukatzen. Foru Aldundiak honako "mehatxua" ere egin die gizpuzkoarrei: tratatutako zabor tona bakoitzeko, 117 euroko tasa. Garesti iruditzen zaigu, baina, egia esan, gaur egun, bat, bi eta hiru laguneko familia asko, ahal duten (eta uzten dieten) guztia birziklatzen dutenak, diru kopuru hori ordaintzen ari dira. Ezetz? Kalkulu txiki bat egin dezagun, ba. Papera, ontziak, oihalak eta pilak birziklatzen baditu, hiru laguneko familia batek batzatek beste 900 gramo zabor sortzen ditu eguneko; hots, 300 gramo laguneko eta eguneko (goitik jotzen ari gara).

Familia horrek, urtean, zabortegetara eramateko moduko 328 kilo sortzen ditu. Beraz, Foru Aldundiak ezarri nahi omen duen prezioaren arabera (arrestian aipatutako 117 euro tonako), familia horrek 38 euro ordaindu beharko lituzke. 2009an hiru aldez gehiago kobratuko diote, ordea. Eta, esan bezala, igoerak jarraituko dute.

Beraz, Kontsurtzioaren atzean, oroz gain, herritarren poltsikoetatik diru gehiago ateratzeko asmoa dago. Zertarako? Errauskailua eta berekin dakaren zaborren tratamendu sistema garestia ordaintzeko.

Bukatu aurretik, detailtxo bat: "berdintasuna" ezarri, Foru Aldundiak bere Zabor Plana urratu eta tasak bakoitzak ekoiztako zabor kopuruaren arabera kobratzeko konpromisoa "ahaztu" egiten du. Honela, birziklatze programetan burondate onez parte hartzen duten eta hainbat material baliotsu musu truk ematen dituzten herritarrek tasa bidez zigortzen dituzte. Askok dutenak eta beharbada zabor gehiago ere sortzen dutenak, berriz, sozietate-eta ondare-zergak jaitziz saritzen dituzte, baita onura fiskalak emanez ere. Horra aurrekontu publiko neoliberalak berdintzeko artea. "Aurrekontu publiko neoliberalak", esan dugu, baina, beharbada, "betiko eskuinaren aurrekontuak" esango bagenu, den-denok hobeto ulertuko genuke.

Juan Mari Beldarrain
Eguzkiren izenarekin

Gabonetako Txokoak ekintza hezgarri eta dibertigarriez beteta

Hamar egun izango dituzte haurrek mila jostailurekin eta milaka jolasekin goatzeko

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuak era Ttakun K. E.ko aisiako sailak, Amaraun egitasmoaren barne, Gabonetako Txokoak antolatu dituzte. Aurten gainera berrikuntza ugari dakartzate.

Gabonetako Txokoaren helburua, aisian euskararen erabilaren bultzatzea litzateke eta horretarako, programazioak ekintza hezgarriak eta dibertigarriak eskaintzen dizkie haurrei, euskaraz biziz ondo pasatzeko noski.

2000 eta 2006 urte bitartean jaiotako haurrei zuzendutako txokoak dira hauek eta Amaraun ludotekan egingo dira. Bertan, haurrek mila jostailurekin goatzeko aukera izango dute baita lagunekin hamaika jolasetan ondo pasatzeko eta ikasteko aukera ere.

Pili Bermejo Ttakuneko aisiako arduradunak aipatu digunez, "jostailu pila izango dituzte eskura eta, gainera, haurrak betiko jolasetan, hala nola, ezkutaketa, *Xagu txiki, xagu maite* edo txapak, jardungo dira. Oso dibertigarria izango da."

Honetaz gain, haurrek programazioan txertatutako ekintza berriak egiteko aukera izango dute, hala nola, irteerak, sukaldaritzako tailerra, karaokea, bide-

oproiekzioak, eskulanak... Hala ere, aurreko urteko programa hain arrakastatsua izan zenez, horretan oinarrituko dira.

Bi egun gehiago

Txokoak 10 egunetan gauzatu dira, beraz, bi egun gehiago izango dituzte haurrek lagunekin jolatu eta ongi pasatzeko.

Beraz, bi astetan zehar haurrek primeran pasako dute. Lehenengo astean, abenduaren 22, 23, 24 eta 26 eta 27n izango dira txokoetako egunak eta bigarrean, aldez, abenduaren 29, 30 eta 31 eta urtarrilaren 2 eta 3a.

Honela, aisiako arduradunak jakin arazi digunez, "aurreko urteetan, ostiraletan

Txokoetan haurrek jostailu pila izango dituzte eskura eta, gainera, betiko jolasetan jardungo dira



Ludian Amaraun klubeko Marko, ludotekara eginiko bisita batean.

egiten ziren ekitaldi berezi edo jaialdiak larunbatetan egingo dira. Lehenengo larunbatetan umeez Ezti, Lur eta Marko Amarauneko lagunekin egoteko eta abesteko aukera

izango dute eta bigarrean gogokoen dituzten doinuak karaokean abesteko."

Matrikula web orrialdean

Ludoteka goizeko 9:00etatik

13:30tara zabalik egongo da eta erabilera irekia izango da matrikulatzen diren haurrentzat.

Gabonetako Txokoaren matrikula egiteko epea zabalik dago dagoeneko eta abenduaren 17ra arte egin ahal izango da. Haur kopurua berrogeira mugatu da aurten.

Informazio gehiago nahi duenak Ttakun K.E.ko bulegotik pasa (Geltoki kalea 4) edo telefono zenbaki honetara deitu dezala, 934 371448.

Baina, informazioa lortzeko aukera berria ere badago, www.ttakun.com, Ttakuneko web orrian hain zuzen ere. Bertan Gabonetako Txokoaren informazioa izateaz gain, matrikula egiteko aukera ere izango da. •

Ekintza berriak egiteko aukera izango dute: irteerak, sukaldaritzako tailerra, karaokea, bideoproiekzioak...

Aurreko urteetan, ostiraletan, ekitaldi berezi edo jaialdiak larunbatetan egingo dira



Eco emisor Fagor Rein

Rein 500 e	130 euro
Rein 750 e	156 euro
Rein 1000 e	190 euro
Rein 1250 e	200 euro
Rein 1500 e	230 euro

Instalazioak doan!

Kontsumo baxuko berogailuen eskaintza!

Instalazio orokorrak:

- etxeko instalazioak
- portero automatikoak
- ...

Mikel Ponga Otamendi



Tel.: 943 36 56 22 / 656 82 72 09